

BERRIGARA

52. zenbakia JARDUN Elkarte, Bergara 1996, urriak 25

URA Eguneroko altxorra

Autoberezi

ANTIGUA AUZOA
ANTZUOLA

FIAT *Alfa Romeo*

1995KO URTEKO KOTXEA




1996KO URTEKO KOTXEAK





CLINIQUE

Alergiaren probak pasatu ditu.
%100 perfumerik gabe.



Clinique kiñuka ari zaizu

Clinique zure eskura gaurtik aurrera Alga perfume-dendan;
eta hori ospatzeko, bisitatzen bagaituzu zuretzat, dohain,
betilen maskara bat.



alga

Urriaren 28tik azaroaren 2ra arte.

Ibargarai, 10. Bergara

Bezero bakoitzeko erregalo bat. Daudenak agortu arteko eskaintza.

Txartela bete eta ekarri Alga perfume-dendara.

Izena
Helbidea
Telefona
P.K.

CLINIQUE

BERRIGARA

ERROTALDE JAUREGIA
20570 Bergara
☎ 76 03 97 • Faxa: 76 08 19

Argitaratzailea:

JARDUN Elkarte.

Zuzendaria:

Eneko Azkarate

Erredakzioa:

Eduardo Mendibil
Mikel Elkoroberezibar
Jone Larrañaga

Maketazioa:

Eneko Azkarate

Publizitatea:

Alex Azkarate

Harpidetzak:

Gorka Elortza

Testuen zuzenketak:

Estepan Plazaola
Maripi Laskurain
Alex Labaien

Erredakzio kontseilua:

Gorka Elortza
Miguel Angel Elkoroberezibar
Alex Labaien

Komikiak:

Bittor Rodriguez
Gorka Ortega & Jon Alvarez
Alex Ugalde
Unai Azkarate

Portadako argazkia:

Benito Cantero

Banaketa:

Txantxangorri taldea

Tirada:

4.200 ale.

Inprimategia:

Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

Copyright:

BERRIGARA

Lege gordailua:

SS 50/91

ISSN:

1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du

Z E B E R R I D A ?

ANTOLIN MARCHENA

Santa Ana elkartekoa

- Elkarteen arteko karta txapelketarako nolako partaidetza lortu duzue?

- Iaz bezala, 10 elkarte izango gara lehian: Aitonak, Artatse, Gorla, Goxo-Pe, Hermandad Pertxa, Lasai-Toki, Madura, Pertxa, San Miguel-Pe eta Santa Ana. Aurten, Txukun elkartearen ordeza Madurak jokatu du.

- Nola jokatu da?

- Zozketa zapatuan iluntzeko 8etan egingo dugu gure elkartean. Lehen kanporaketa azaroaren 9an jokatu da Pertxan, eta zortzi elkarte sailkatuko dira. Final laurdenak 16 eta 23an jokatu dira eta lau elkarte onenek final erdiak eta finala jokatu dute azaroaren 30ean. Elkarte bakoitzak hiru bikote



aurkeztuko ditu eta partida bakoitzean hiru puntu izango dira jokoan, tutean eta mus 8 erregetara eta 10 erregetara.

- XXVIII. edizio honetako faboritoa?

- Trofeoa eramateko hiru aldiz jarraian edo, bestela, bost aldiz irabazi behar da txapelketa. Hermandad Pertxari garai-pen bakarria falta zaio, lau irabazi ditu eta.

“Txapelketa azaroaren 9an hasi eta hil bukaeran amaituko da”

I T U R R I O N E T I K

Osintxuko ludoteka lehengo ikastolaren lokalean jarriko da

Kultur Zerbitzuak, Gazteria eta Jaiak batzordeak Osintxuko ludoteka lekuz aldatzeko proposamena egin zuen gaur egun Abadetxean dagoen lokala egoera onenean ez dagoela ikusi ondoren.

Oraingo ludotekan, dirudienez, hezetan haundia sortzen da komunak dauden aldean eta, era berean, Ikastolak erabiltzen zuen lokala libre dago eta askoz ere baldintza hobegotan gainera.

Gauzak horrela, Kultur Zerbitzuak, Gazteria eta Jaiak batzordeak ikastola zegoen lokala txukundu eta pintatzeko erabakia hartu du bertan ludoteka kokatzeko asmoz.

E S A N
D U T E

“Euskaltzale gehientsuek diote euskalkiei eutsi egin behar zaiela, indartu eta erabili egin behar direla, baina egin gauza gutxi egiten da. Herri mailako ihardueretan presentzia inportantea euki behar luke herri-euskarak. Komunikabideetan eta eskolan, bereziki. Nire ustez, komunikabideetan %20-40 eman behar zaio euskara herrikoari eta gainetikoa batuari”

JUAN MARTIN ELEXPURU
Idazlea
EL DIARIO VASCO

“Une eta egoera desberdinetan ditugun joera edo ohiturez barre egiten dugu eta jendeak gurekin ere barre egiten du. Zirkulu itxietan lan egiten dugu gehienetan eta ikusle oso desberdinen aurrean”

RAKEL IMAZ
Oihulari Klown taldekoa
IRUTXULO ALDIZKARIA

**STRIPTASE**

Eguakitza: 22:30.

Zapatua: 22:30.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena: 19:30 (Ikuslearen eguna).

**ABAJO PERISCOPIO**

Zapatua: 17:00, 19:30.

**CORSARIOS DEL CHIP**

Domeka: 11:30 (Matinala)

Zinea

▼▼ **Demi Moore** aktoreak (*Acoso, Algunos bombres buenos*) marka guztiak hautsi ditu bere gorputza erakusteagatik izugarritzko dirutza jasotzean. **Erin Grant** FBIko agenteak (**Moore**) bere alabaren kustodia galdu du eta abokatu on bat ordaindu ahal izateko Floridako *striptease* klub batetan hasiko da lanean. **Armand Assante** eta **Burt Reynolds**en partaidetzarekin.

▼▼ **Tom Dodge** komandanteari (**Kelsey Grammer**) misio arriskutsu bat aginduko diote baina *Stingray* submarinoa egoera benetan txarrean dago eta mila arazori aurre egin beharko dio. Berarekin duen tripulazioko kideak ere nahiko xelebreak dira eta, beraz, misioan zehar ezuste bat baino gehiago izango dituzte...

▼▼ Informatikaren munduan girotutako filmea protagonizatu dute **Fernando Guillen Cuervok** eta **Karra Elejaldek**. **Andres** izeneko gazte batek (**Jorge Monge**) izugarritzko arrakasta lortu du telebistako lehiaketa batean baina telebista kateko zuzendaritzak tranpak egiten dituela uste du. **Robertok** eta **Gamboak** (**Guillen** eta **Elejalde**) zer gertatzen den ikertu beharko dute.

Deiak

▼ **Eibar-Gasteiz** autopistari buruzko panel informatiboak Kultur Etxeko sarreran.

▼ **Ana Fernandez**en margo erakusketa Nahikari tabernan.

▼ **Udazken Kulturala**ren barruan Tapiola abesbatzaren kontzertua gaur, ostirala, arratsaldeko 8etan Udal Pelotalekuan.

▼ **Mendi irteera** 14 urtetik gorako gazteentzat Urederrara egun guztirako, domekan. Irteera goizeko 8:30etan Beheko estazioan. Izen-ematea Pol-Polen.

▼ **Agustin Zubikarai** narrazio lehiaketa. Lanak entregatzeko epea azaroaren 15era arte. Argibideak (94) 613 43 44 telefonoan, Ondarroako Euskara Zerbitzuan.

Ogia

▼ **Igandea 27:** Konde.

FARMAZIAK

- ▼ **Eguakitza 25:** Mozos/Ruiz.
- ▼ **Zapatua 26:** Camacho/Morales.
- ▼ **Domeka 27:** Camacho/Azkoaga.
- ▼ **Astelehena 28:** Puy/Español.
- ▼ **Martitzena 29:** Guallar/Corcu..
- ▼ **Eguaztena 30:** Estella/Irizar.
- ▼ **Eguena 31:** Mozos/Amezua.

Kizkur

**ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA**

Bolu, 51 Tfnoa: 76 50 32

LARREA

TABERNA

Kale Barren, 17
ANTZUOLA

Era guztiak marrazki, argazki, letra eta abarrak kamiseta, sudadera edota nikietan inprimitzen ditugu, zuri-beltzean zein koloretan. Fotokopiak koloretan. Futbol, saskibalo edota ziklismoko kamisetetan letra, zenbakiak edo dibujoak jartzen ditugu. Publizitate artikulak: boligrafoak, metxeroak, gorrak, agendak...

San Lorentzo, 7 behe. ☎ 76 50 39


Kaixo Ura!!

Urari buruzko erakusketa Kultur Etxean

Astelehenetik eguenera bitartean, aurtengo Udazken Kulturalaren programazioaren barruan, *Kaixo ura* izenburuko erakusketa ikusgai izango da Kultur Etxean.

Gipuzkoako Ur Kontsorzioak martxan jarritako erakusketa ibiltari hau herriz herri erakusten ari da joan zen ekainetik. Bertan, *Martin arrantza-lea* maskotaren eskutik, ikusleek uraren inguruko informazioa jaso ahal izango dute. Kultur Etxean panel informatibok (30 inguru), bideo bat edo depuradora bat izango dira ikusgai, uraren prozesu guztia azalduz. Helburua herritarrek urarenganako kontzientzia eta sentsibilizazioa hartzea litzateke. Ura aurrezteko gomendioak jaso ahal izango dira eta, era berean, uraren kalitatea hobetzeko ingurunearekiko errespetua ezinbestekoa dela azpimarratzen da.

Antolatzaileek lehentasuna ematen diote ikasleek mezu hori jasotzeari eta hori dela eta herriko ikasleei zuzenduriko bisita gidatuak antolatuko dira. Hala ere, antolatzaileek ez dute horra mugatu



Uraren erabilera egokia bultzatzeko kontzientziazio kanpaina egin du Ur Kontsorzioak.

nahi eta Victoriano Gallastegi Bergarako alkateak eta Ur Kontsorzioko presidentek azaldu digunez, *"urte amaierara arte erakusketa honekin ibiliko gara baina datorren urtean urarekin lotutako beste ekitaldi batzuk jarriko ditugu martxan. Jendeak uste du ura sobran dagoela baina etorkizunean urarekin arazoak egon daitezke eta hori prebenitzeko jendea kontzientziatu beharra dago"*. Gaur egun Gipuzkoako 64 herri dira Kontsorzioko bazkide, Gipuz-

koako herrien %72a eta biztanleen %82a, 311.000 biztanle hain zuzen ere.

Udazken Kulturala

Bestalde, Udazken Kulturalarekin jarraituz, datorren ostiralean, azaroaren 1ean, Chulillako Musika Bandari harrera egingo zaio arratsaldeko 7etan Udaletxean. Balentziarrek zapatuan, arratsaldeko 7etan, kontzertua eskeiniko dute Novedades aretoan. Musika Eskolako Orkestrako kideak Chulillan izan

ziren joan zen Aste Santuan eta balentziarrek bisita bueltatzekotan geratu ziren orduan. Azaroan beste emanaldi hauek ere izango dira: Mondragon Brass kamara musikako kontzertua azaroaren 15ean, Roberto Bonettoren organo kontzertua 16an, Bergarako Udal Musika Banda azaroaren 24an, 29an kale antzerkia Tunantes del Norte taldearekin eta azaroaren 30ean, berriz, Txalo taldearen *Xagu tranpa* izenburuko antzezlan izango da Novedades aretoan.

Angiozar, 37

☎ 76 27 82



Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

BERGARA Karrozeriak Txapa - Pintura

Zubieta, 46 BERGARA

☎ 76 12 31

Eroski Bidaiak-en engainua

Laburki kontatzera noa neri eta nere familiari gertatutako kasua aurtengo Aste Santuan. Arrasateko Eroski Bidaiak-en bidez eta Soltour maiorista bezala Palma de Mallorcara bidaia bat hartzen dugu. Guk erositako bidaia apirilaren 8tik 14ra zen. Forondara joan ginenean ikusi genuen gure hegaldia hurrengo egunerako programatuta zegoela eta ez hilaren 8rako, gure billetean agertzen zen bezala. Bertan esan ziguten Soltour hilabete aurretik jakinean zegoela gure hegaldia hilaren 9rako programatuta zegoela.

Ertzoko bidaian, aeroportura heldu ginenean, gure hegaldia ez zegoen programatuta. Bertan inork ez zekien ezer eta makina bat buelta eman ondoren, lortu genuen "hegaldi fantasma" martxan jartzea, hegaldiko 148 lagunek aireportuko liburuan gure kexa azaldu ondoren.

Gauzak hola egonda, Eroski Bidaiak-eri idatzi bat bidali nion argitasunen bat eskatzen, eta honek Soltourren erantzuna bakarrik bidali zidan. Ondoren beste idatzi bat bidali nuen eta orain arte (urria) ez dut erantzunik jaso. Eroskik ez zuela erantzuten ikusita, eta kasua argitzeko asmoz, konsumitzailearen bulegora jo nuen uztaillean. Bi hilabete pasa ondoren ez nuen erantzunik jaso eta nik deitu nuen galdetzeko zela zegoen nere kasua, erantzun honekin: "No se puede tramitar la queja por no haberla presentado en el plazo de un mes. Lo siento". Aholku bat nahi baduzue, ez erosi Eroski Bidaiak-en zerbitzurik.

J.M.I. (BERGARA). NAN: 72.568.039

Antzuola-Bergara

Karta honen tituluak polemika posible baten ideia burura ekarri badotzu, dezepzionauko zaitut, eztago eta batere polemikarik. Baina tituluakin horixe nahi nebenez, zu leitzen ipintzia, segizu oiñezkero. Oingo hontan, Antzuola eta Bergara bidian, Eskusarte parian, aspaldi hontan (baina "oso aspaldi") diharduen obrak dirala eta idazten dot. Obra monumentalak porzierto! Asko gara, hainbeste denboran ze obra klase eitten dabitzen alkarri preguntian gabitzenak agostuan hasitako pareta horrekin, baina tira, ez noia horren gainian ezer askorik esatera.

Salatu nahi dotena hauxe da: biharrezkua bada obra hori, ein deixiela; 3 hilabete bihar baditue, hartu hilabetiok; baina mesedez, mesedez diñotsuet, kamiñua hori baino seinale adierazgarriarekin markau, edo batentbat ipini. Obra seinale bat, abiaduta txikitzeko besten bat, eta zast! derrepentian. Bonbulu pareko kurba ostian, kotxiak geldik. Ikaragarrizko arriskuan gabitz egunero, kurba horren ostian topauko doguna zer dan eztagigula! Eta hori ondo ezagutzen dogula.

Ez dot polemikarik nahi, igual legian barruan dago seinalizazio hori, baina bide danak ez dira igualak. Bergarako Ertzaintzak edo Udaletxiak zer bait eitteko bidia izango dabe. Bittartian, kontuz gidarixok! Renaultaren parian, frenau, aberixako argixak piztu... eta suerte on!

P.D.: Obrak amaituta egon arren, ea hurrengoan gomendixuok kontutan hartzen dien. Hau posatzen dan lehen aldixa ez da.

GOTZON IPARRAGIRRE

Karate klaseak

Mari Carmen Saez Vega Andereak, Euskal Karate Federazioiko idazkari orokorrak, egiaztatua:

Bergarako Giartzu klubaren arduradunak hala eskatuta, Euskal Karate Federazioak egiaztatzen du aipatutako Giartzu taldeak karateko klaseak emateko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituela, nazio/estatu mailako titulua duen entrenatzailea baitauka: Federazio honek ontzat emanda praktikatzen diren karate mota guztiak barne hartzen dituen titulazioa.

Bestalde, Federazio honek ez du ezer esan, inork hala eskatu ez diolako 96-1-18ko 251 zenbakiko Berrigara aldizkarian, "Gutunak" sailean agertutako gutunari buruz.

Horrela jasota gera dadin eta dagokion ondorioak izan ditzan emandako egiaztageria, Bilbon, 1996ko urriaren 23an.

MARI CARMEN SAEZ VEGA (EUSKAL KARATE FEDERAZIOKO IDAZKARI OROKORRA)


Kide bakarra

Gipuzkoako Karate Federazioak, egiaztatzen du: Bergarako Giartzu gimnasioa dela 1996ko urriaren 21ean Federazio honetara afiliatuta dagoen bakarra.

Horrela jasota gera dadin eta dagokion ondorioak izan ditzan emandako egiaztageria; mila bederatziehun eta laurogeita hamar seiko urriaren hogeita batean

GIPUZKOAKO KARATE FEDERAZIOA

Tiira biraka



Behobia-Donostia korrika proba

Azaroaren 10ean jokatu den Behobia-Donostia korrika proban parte hartzeko interesa dutenek Bolintxo Kirolak, Lazkano oinetakodenda edo Xamartin Kirolak dendetan eman dezakete izena. Bestalde, Zaleak atletiko taldeak autobusa antolatu du eta izen-ematea 76 32 39 (Alex) telefono zenbakian egin daiteke.

AEK Eguneko zozketa

Domekan ospatu zen AEK Egunean egindako zozketan honako zenbaki hauek izan dira sarituak: 923 zenbakiaren jabeak kotxea eskuratuko du eta 29.154 zenbakiarentzat, berriz, bidaia bat izango da.

Oihulari Klown

Oihulari Klown taldeak "Molestias klownicas" antzezlanaren eskeiniko du ostegunean, urriak 31, gaueko 10etan Pol-Polen.



Garai batean inguruko zine aretorik ederrena izan zena botatzen hasi dira aste honetan.

Irala zine aretoa botatzeko lanak hasi dira aste honetan

Aste honetan hasi dira Irala zine aretoaren eraikitzea bertan behera botatzeko lanak. Construcciones Arregi enpresak burutuko ditu botatze lanak eta, behin lan horiek amaitutakoan, Espectaculos Bergara S.A. enpresak epe berri bat izango du Irala zine aretoko lur-sailean jarriko diren zerbitzuen proiektua aurkeztu ahal izateko.

Udalak eta Espectaculos Bergara S.A. ordezkatzaren duten Jose Mari Irizarrek eta Jesus Quemadak hitzarmena sinatu zuten otsailean lursaila ber-

kalifikatu eta Irala zine aretoa zerbitzutarako bideratu ahal izateko. Oraindik proiektu hori landu gabe dagoen arren, baliteke bertan lokal komertzialak, bulegoak edo garajeak jarri ahal izatea. Aipatutako proiektua datorren urte hasierarako aurkeztu beharko da.

Irala zinea 1970eko martxoan inauguratu zen eta 1986 urterarte egon zen zabalik. Sasoi horretan Gipuzkoako aretorik onenetarikoak zen Irala, 1.450 lagun sartzen zirelarik. 80ko hamarkadan zineak jasan zuen krisial-

diaren ondorioz, Iralak bere ateak itxi behar izan zituen eta ordutik lokala abandonatuta egon da. Udalak behin baino gehiagotan erosi nahi izan du baina jabeek ez zuten jasotako eskaintzak onartzerik nahi izan.

Bestalde, Simon Arrietako bizilagunek lokalaren egoera penagarria salatu izan dute Udaletxean azken urteetan eta azkenean lokalari irtenbidea topatu zaio. Argi dagoena da Irala botatzen denean herriaren erdialdea erabat itxuraldatuta ikusiko dugula.

HILDAKOAK

Maria Beistegi Umerez
Urriak 17, 89 urte.

JAIOTAKOAK

Borja Berroya Erce
Urriak 16.



PINTURAS BERGARA S.L.

- INDUSTRIARAKO PINTURAK
- APAINKETARAKO PINTURAK
- GARBIKETAK
- ERROTULOAK

Aranerreaka, 32 behea BERGARA. Telefona eta faxa: 76 11 40

Argazki rallya domekan

Pol-Pol Argazki Taldeak antolatuta, domekan argazki rallya jokatu da Bergaran. Izen-ematea goizeko 8:30etatik 9:30etara egin ahal izango da Pol-Pol Argazki Taldearen bulegoan, Zabalotegin.

Euskal Herrian Euskaraz

Euskal Herrian Euskaraz taldeak ostegunean, urriak 31, 19:30etan Kultur Etxean egingo den bilerara joateko dei egiten du.

Egineko Mus Txapelketa

Egineko Mus Txapelketako azken kanporaketa bihar zapatua 16:30etan izango Antzuolako Surpe tabernan. Finala hurrengo astebukaeran, Olalde elkartearen.

Kutxaren kontrako atentatua

Ezezagun batzuk su eman zioten domekan, gauerdian, Kutxak Simon Arrieta kalean duen kutxazain automatikoari. Zubillagako suhiltzaileak eta ertzainak sua amatatzen izan ziren. Alboko etxebizitzak kearen ondorioak jasan zituen. Berrigaran jasotako dei anonimo baten arabera, atentatua euskal preso egoera eta bereziki "Txerra" eta "Bizkai"ren egoera salatzeke egin zen.



Gazte talde bat berrizte lanak egiten ari da Goiko estazioko edifizioan.

Goiko Estazioko etxea botatzea erabaki du Udalak

Gazte talde batek eraikuntza okupatu berri du

Arau subsidiarioetan jasotzen denaren arabera, zentral zaharra zena izan ezik, gainerako edifizio guztiak bota egingo dira Goiko Estazioko eremuan. Momentuz, Udalak Txebaz S.L. enpresari adjudikatu dizkio Goiko Estazioko edifizioa botatzeko lanak. Aipatutako lanek 500.000 pezeta inguruko aurrekontua izango dute, oraindik lanak hasteko fetxarik zehaztu ez den arren. Hiruko gobernua edifizioa botatzearen alde azaldu da eta HBk, berriz, gazte batzuk bertan berrizte lanetan ari zirela jakin ondoren, edifizioa mantentzearen aldeko iritzia eman zuen Plenoan.

Herriko gazte talde batek Udalak bota nahi duen etxea erabiltzea aldarrikatu du egunotan kaleratuta-

ko idazki baten bidez. Bertan jasotzen denez, *"biltzeko lokal falta hiru urtetan jasan ondoren, hainbat urtetan hutsik egon den Goiko Estazio zaharra okupatu eta berriztea erabaki genuen, autogestionatutako lokal alternatibo bat osatzeko"*. Bestalde, Udalarari etxea berrizteko proiektua proposatu zuela adierazi dute gazteek: *"erantzunik ez dugu jaso eta etxea birrintzeko asmotan dabilta "gobernuan". Horrela balitz euren jarrera prepotente, espekulatuzaile eta faxista salatu nahi genuke"*. Alkateak, berriz, gazteekin kontakturik ez dela izan, ez dutela lokalik eskatu eta Hirigintza batzordearen proposamenari jarraituz edifizioa bota egingo dela adierazi dio Berrigarari.

GISASOLA BURDINAKI DENDA

"Erratzu"

San Pedro, 8

Tfnoa: 76 27 70

BERGARA

Kabia TABERNA-ERRETEGIA

Eguneko menua.

Karta (2.000-3.500 pzta. artean).

Okela eta arraina parrilan (enkarguz).
Pintxoak, kazolatxoak eta bokadilloak.

Zubiaurre, 23 BERGARA ☎ 76 23 08

Gorlako kantina ekipatzeko inbertsioa egingo du Udalak

Kantinaren adjudikazioa errezteko 2 milioi gastatuko dira

Bergarako Udalak 2 milioi peze- ta inguruko inbertsioa egingo du Gorlako kantina ekipatzeko. Kanti- na joan zen maiatzaren 22an inau- guratu zen baina Udalak ez du oraindik kantina adjudikatzerik izan. Hori errezteko asmoz, kanti- na beharrezko tresneriarekin ekipa- tuko da laister eta ondoren baldin- za plegu berriak kaleratuko dira.

Oraingoz tabernako barra jarri da bakarrik eta sukaldea adibidez ez dago batere ekipatuta. Kantina urtarrilean martxan egoteko itxaro- pena dauka Udalak eta horretarako kantina eskuratzeko interesatuta egon litezkeen herritarrekin harre- manetan jarriko da aurretik. Au- rreko deialdian eskakizun bakarra aurkeztu zen Udaletxean baina

egin beharreko inbertsioa nahiko altua zela ikusirik, berehala erre- tiratu zen.

Gorlako kantina Diputazioko Nekaritzza Sailaren laguntzaz eraiki zen eta ura bertara eraman ahal izateko arazoak izan ziren hasiera batean. Antzuola eta Bergarako Udalek eta Hiru Mendi ganadu el- karteak sinatutako akordioari esker Itxumendiko depositotik eramango da ura kantinara. Gorlako kantina berria martxan jarri bezain laister kantina zaharra bertan behera bota- tzeko asmoa dago. Kantina berrian, tabernaz gain, mendizaleek erabili ahal izango dituzten komunak egongo dira. Horrez gain, Gorlako parkean beste hobekuntza batzuk egin dira azken hilabeteetan.



Joan zen maiatzean inauguratu zenetik Gorlako kantina itxita dago.



Langileen itxialdia

Hamaika lagunek hartu zuten parte LAB sindikatuak euskal presoek Euskal Herriratzea eskatzeko astebukaeran Bergarako Udaletxean deitutako itxialdian.

Eskualdean egindako itxialdi ezberdinetan, 71 lagunek hartu zuten parte. Itxialdiaren ondoren, domeka eguerdian manifestazioa egin zen Bergarako kaleetan.

Dantza ikastaroa

Jardun Elkarteak fandango eta arin-arin ikastaroa antolatu du azaroaren 13tik martxoaren 26ra. Klaseak asteazkenetan izango dira, 19:30etatik 21.00etara eta irakasleak Amaia Agirre eta Edu Muruamendiaraz dantza txapeldunak izango dira. Izen- ematea azaroaren 8ra arte zabalik. Argibideak Jardunen.

Presoak gose greban

Amnistiaren aldeko Batzordeak manifestazioa konbokatuta du gaur, ostirala, arratsaldeko 8etan plazan, "Bizkai"k eta "Txerra"k 24 egun gose greban daramatzatelako. Bestalde, Martin Garitano, EGINEKO kazetari bergararrak, hainbat komunikabidetako ordezkariekin, presoek egoera salatzeke Donostiako Artzai Oneko elizan egin den astebeteko gose greban parte hartu du.

SUBIJATI

Gazteentzako moda

Irizar, 1 ☎ 76 42 41



JATETXEA

- Eguneko menua.
- karta zerbitzua.
- Gure berezitasuna: Arraina eta okela parrilan.

Tartufo Jatetxea

San Juan auzoa, Elgetarako bidea. ☎ 76 35 51

TERRAZA

- Menu ekonomikoak.
- Plater konbinatuak.
- Bokatak.
- Oilaskoak.

Legedia

Jabetza horizontala

- Etxebizitza askotan jabekideren batek bere kuota ez ordaintzea gertatzen da batzutan...

- Jabetza Horizontaleko legeak arautzen duenez etxebizitza jabe guztiak behartuta daude edizioaren sostengu egokirako gastu orokorretan bere parte ordaintzeko. Obligazioa etxebizitza bat edo lokal bat erosten den momentutik hasten da eta etxebizitzaren jabeari dagokio, ez errenteroari edo etxean bizi den besteren bati. Baina gertatzen da auzokide batek berandu ordaintzea edo ez ordaintzea.

- Hileko kuota edo konponketaren bat ordaintzen ez dutenekin zer egin dezakegu?

- Horrelakoetan epaitegira jo beharko da zor duen diru kopurua erreklamatzeko. Judizio deklarati- bo batera jo beharko da, hau da, lehenik epaileak jabekide horrek dirua zor duela deklaratu beharko du epai baten bitartez, eta ondoren, behin epaia izanda, jabekideak oraindik ordaintzeke segitzen badu, epaia gauzatu egin beharko da eta jabekidearen on-

dasunak (gehienetan etxebizitza) enbargatzeko eska dakioko epaileari. Prozedura luze samarra gertatzen da, bi fase horietan egin beharra dagoelako, alegia, eskubidea deklaratzekoa eta epaia gauzatzekoa.

- Baldintzaren bat bete behar al da epaitegira jo ahal izateko?

- Bai, komunitateko Ba-



ELENA LAKA
(Abokatua)

tzarrak administradoreari ahalmena eman beharko dio epaitegira jotzeko, eta baita ere Batzarrak zorren zenbatekoa zehaztu beharko du, zenbat zor den ohizko kuotengatik eta zenbat ez ohizkoengatik.

“Ordaintzen ez duten jabekideen arazoa oso zabaldua dago eta dekretu berri bat irtetzear dago”



Etxebizitzako kuotak kobratzea ez da erreza izaten askotan. ARTXIBOA

- Epaitegiko prozesu horretan ordaintzen ez duen jabekideak etxebizitza salduko balu?

- Etxebizitza aurreko urtebetean sortutako gastuei loturik geratzen zaio, beraz epaiketak segi dezake aurreko jabekidearen aurka baina etxebizitza enbargatzeko orduan jabe berriari enbarga dakioko. Horregaitik garrantzitsua da etxebizitza bat erosterokotan etxe barruko kuota guztiak ordainduta dituela ziurtatzea.

- Derrigor jo behar al da epaitegira eta prozedura hau segitu?

- Gaur egun indarrean dagoen legeriarekin bai. Aspaldiko aldarrikapena da prozedura aldatzea errezago izan dadin kuota hauek kobratzea. Gaur egun legeak gainerako jabekideei babes eskasa eskeintzen die. Horrela, badirudi Gobernua, gai hone- taz jabeturik, aldetaren bat egiteko asmotan dabil- lera. Badirudi Dekretua laster gertu izango dela, eta ondorioz kuotak kobratzeko prozedura hori motzagoa izango dela. Alegia, komunitateko Batzarrak jabekideren batek dirua zor duela zehazten duenean, administradorearen edo komunitateko lehendakariaren ziurtagiri baten bitartez epaitegira jo ahal izango da, ordaintzen ez duenaren ondasunak enbargatzeko eskatuz.

AGENTZIA:
J. ELKORO

Ibargarai, 2 behea
Tfnoa: 76 57 85
BERGARA

VITA

CAUDAL

ZURICH TALDEA ASEGURUAK

ZURICH

UNIBER

HISPANIA

Gallastegi

Jostundegia

Mahoizko lanerako jantziak

San Pedro 76 10 85

Presoak

Herritik gertuen dagoen preso bergararra 400 kilometrora

Bergaran 1987an 4 preso politiko zeuden, 95ean 20 eta orain 11 daude. 8 gartzelatan sakanatuta daude, bat ere ez Euskal Herriko gartzelatan, eta gertuen dagoena 400 kilometrora. Ibabek, Etxanizek eta Txerrak legez kalean egon behar lukete, kondenaren hiru laurdenak beteta dituztelako. Presoak eta dispersioaz hainbeste hitzegiten ari den unean, Senideak eta Gestorekin hitzegi dugu.



Pedro Belastegi, espetxetik irten den azken preso bergararra, ongi-etorria egin zitzaionean.

Gestoren lanik garrantzitsuena presoaren egoeraren salaketa politikoa da. Senideak apolitikoa da; politikoki mota desberdinetako jendea dago, izan ere, "senide izatea ez da aukeratzeko tokatu egiten da."

Une honetan Senideak eta Gestorak amaigabeko borrokan sartuta daude. "Guk dugun informazioa zabaltzeko eta elkartasuna eskatzeko bide eta instantzia guztiak erabili ditugu, elizarekin egon gara, epaitegian salaketak etengabe jarri ditu-

gu... eta ez dugu erantzunik jaso. Presoek euren esku dauden borroka mota guztiak erabiltzen dituzte, bereziki kalte handiak eragiten dizkieten txapeo (zeldatik ez irtetzea) eta gose grebak, eta ezin da horrela jarraitu, 17 urteko egoera delako. Horregatik, Gestorak, Senideak eta pre-

soak amaiera bereko borrokan sartuta gaude: kalean Buen Pastorreko gose greben bidez, eta presoak barruan amaierarik gabeko gose greban. Konkretuki, Txerrak eta Bixkaik hil hasieratik gaur arteko (25 egun) gose greba egin dute. Beraz, urtebetean hirugarrena".

"Dispersioa ilegal"

Legeak dio presoaren zigorra askatasunik ez izatea dela eta etxekoengandik gertu egon behar dutela. "Euskal preso politikoei, ostera, preso politikoei ez direla esan arren, eurentzako disenatutako politika ezarri zaie: dispersioa, legez

ZAPELAITZ

Taberna

Eguneko menuak
astelehenetik ostiralera

San Lorentzo, 25 BERGARA

ETXAGI

JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK, EGUNEROKO
MENUA, GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8 ☎ 76 53 12

GURIDI

altzariak

Era guztietako altzariak

Artekale, 8 Tfnoa: 76 31 02

“Presoetz askotan hitzegiten da, baina sekula ez da euren iritzia zuzenean zabaldu”

kanpo dagoen neurri politikoa. 9 urtean ez dira bete helburuak, besteak beste, presoek kolektiboa zatitzea eta damuketa. Bergaran ere preso kopurua, dispersioa hasi zenean baino handiagoa da. Hala ere, kalte gehien eragin duena da, zigorra preso bakoitzaren azterketa eginez aplikatzen delako. Oraingo borrokaren helburua da presoak elkartuta Euskal Herrian egotea; euren oinarritzko eskubidea besterik ez da eskatzen”.

Isolamendua

Senideek eta Gestorek adierazi dutenez, dispersioa gauzatzeko bideak dira: zelda aldaketak, gauetan rekuentoak, trasladoak, jipoiak, eta isolamendua. Isolamenduari dagokionez, gizartearen isolamenduz gain, taldearen isolamendua dago: “euren kideekin ez dute

politikaz berba egiteko aukerarik. Beste preso politikoko batzuekin daude, baina modulo desberdinetan, eta ez dute elkar ikusteko aukerarik”.

Bestetik, erabateko isolamendua dago: “presok ez du harremanik inorekin. Astean bisitara joaten zaion jendea besterik ez du ikusten. Bixkai erabateko isolamenduan dago. Bixkai eta Ibabe, biak bergararrak dira, biak Ourensen daude eta inoiz ez dute elkar ikusten, bisitetan ere ezin da batera joan”.

Sailkapenagatik egiten den isolamenduaren ondorioz, presoak eguneko 22 ordu zeldan eta bi patioan pasatzen ditu. “Txerra eta Etxaniz daude egoera honetan. Etxanizek dagoeneko 7 urte daramatza horrela. Isolamendu neurri hauek helburu politikoez gain, presoaren nortasuna sunsitzeko ahalegin garbia dira: babesgabezia, etsipena, stressa eta desoreka psikiko larriak sortzen ditu”.

Presoek astero 40 minutuko bisita izaten dute, eta espetxe batzuetan hilean behin senideekin visa (presoren eta senidearen artean ez dago kristalik eta elkar ikutzeko aukera dute). “Grabadora dagoenean ia bisita

Bisitetan ezin dena esan

guztia keinuekin izaten da: presoak ezin du inongo debilitaterik azaldu, bestela erabili egiten dute kaña emateko. Hortaz, ezin da dena esan. Orduan zuk gauza bat esan, eta presoak beste bat ulertzen du, edo aldrebes, eta nabasmena sortzen da. Alde batetik, grabatu egiten dutela, bestetik ez dela ondo entzuten, kabina asko daukelako, eta denak zaratata dihardutelako... Bisitetan sarritan oso gaizki ateratzen da bisitara joan dena; eta baita preso ere”.

Senideek eta Gestorek diotenez, presoak aste guztian bisitaren zain egoten dira. “Presoa bisitatan irtetzen denean,

hilabeteroko rebisioa behar du; urteetan ez diote egin. ■ Kondenaren hiru laurdenak beteta ditu, kalean egon beharko luke.

Hamaika preso

Bergarako presoek euren gertukoenera berri eman digute.

Iñaki Ibabe

- Ourensen dago. 1.280 kilometro joan-etorria.
- Zazpi gartzelatan egona. 97ko otsailean 17 urte beteko ditu preso.
- 14 gose greba egina, luzeena 44 eguneko; ondorioz esofagoko ultzera du.
- Puerto de Santa Marian zegoela tinpanoak ez apurtzeko zeldan tapoiekin egon behar zuen, zelda barruan zeukaten sirena zela eta.
- 80an Sorian bekokian eman zioten kuletazo bat dela eta, begietan zerbait dauka. Jipoiaren ondoren familiako argazkiei bihotza eta

begiak zulatu zizkieten.

- Zailtasunak ditu lagunen bisitak lortzeko.
- Kondenaren hiru laurdena beteta daukanez, kalean egon behar luke.

Jose Mari Etxaniz

- Puerto de Santa Maria 2n dago. 9 gartzelatan egona.
- 20 gose greba baino gehiago egina.
- Azken 7 urteetan Puerto de Santa Marian isolamenduko zeldetan dago. Ez du jangela ezagutzen, jana ate azpitik pasatzen diote.
- Duela 2 hilabete arte 22 orduan egoten zen zeldan.
- Urteetan egon da senideak ikutu eta besarkatu barik.
- Gultzurruneko gaisotasuna du, 6

hilabeteroko rebisioa behar du; urteetan ez diote egin.

- Kondenaren hiru laurdenak beteta ditu, kalean egon beharko luke.

Xabier Oregi, “Panti”

- 1982an errefuxiatu, eta 87an polizia frantsesak espainolari entregatua.
- Murcian. 1.600 Km. joan-etorria.
- 9 gartzelatan egona. 9 urtean 9 gose greba.
- Almerian 6 hilabete zeldatik irten gabe egon zen jasaten zuen egoera salatzen.
- Salto del Negroko gartzelan (Canarias) isolamenduko zeldan egon zen: ez zuen laborarik, armairurik, leihorik. Zeldako argi bakarra funtzionarioek nahi zutenean pizten zioten.
- Aita hil zitzaionean trasladoan zegoen. Familiak 14 egunetan ez zuen berari buruzko ezer jakin. Aita

nabiz eta gaizki pasatzen egon, ez da irutzen negarrez, makurtuta... Bestela preso bakoitzak bisita guztietan gauza berberak errepikatu beharko lituzke: egunero borrokan dabilela gauzatxo bat lortzeko; instantzia bat egin behar duela beste balako lortzeko; denuntzia bat duela balakogatik... edo gauetan ez diotela lorik egiten lagatzen...".

Komunikabideak

Gestorek diotenez, PNV da dispertsioarekin bukatzeko klabea, "bere esku dago egoerari buelta ematea. Urteetan egon da dispertsioaren alde, eta bultzatu ere egin du. Anbiguitatetik atera egin behar da". Euren ustez, zigor politikoa udalaren esku ere badago. "Berez, preso guztiek udalen eskutik dirulaguntza jasotzeko aukera dute, baina



Etzaniz eta lbabek 16 urte pasa daramatzate kartzelan. Aurtengo otsailean omenaldia eskaini zitzaion.

senideei ukatu egiten zaien, politikoak direla esanaz. Hor dugu Maren eta Garaziren kasua: gurasoak, Maite eta Peito, preso zituzten eta udalak

ez zien dirurik eman".

Gaur egun dagoen egoeraren erru handia komunikabideena dela diote. "Giza eskubideen zapalketen berri emateko

egunero dugu kontatzeke, eta komunikabiderik ez da etorri gugana, ez Berrigara ere. Beti gu joan gara komunikabideetara. Hasieratik sala-

hil zela astebete beranduago esan zioten.

Luis Mari Azkargorta, "Kanto"

■ 8 urte daramatza gartzelan; 8 gartzelatatik pasatu da.

■ Orain Huescan dago. 600 Km.

■ Leonen egon zen denboran erabateko isolamenduan egon zen: ez zuen inorekin berba egiten, ez inor ikusten, zapatuetako bisitakoa izan ezik. Garbitzeko gauzak edo edozer gauzatarako funtzionarioei eskatu behar zien.

■ Huescan hasieran erabateko isolamenduan egon zen, amerikar zelda izenekoa: ate barik, bakarrik barroteekin; intimitaterik gabe.

■ 95eko maiatzetik meniskoa apurtuta du. Ez dute operatzen, ez du ospitalera joateko baimenik.

Eukene Gracia Campillo

■ 6 urte gartzelan. 5 gartzelatan

egona. Ceutan dago, 2.600 Km. joan-etorria.

■ Ceutara joateko 40 orduko bidaia egin behar da, tren, ferrya eta autobusa erabiliz. 30.000 pta. kostatzen da.

■ Torturen ondorioz bihotzeko lesio bat eta bertebrak bat izorratuta ditu.

■ Canariasen zigorrak jasaten zituenean familiak 10 minutuko bisitak izaten zituen.

■ Ceutako preso politikoa bakarra da. Zuzendaritzak preso sozialak mehatxatuta ditu berarekin hitz egin ez dezaten.

■ Carabanchelgo isolamendu zeldetan arratoiak zituen.

Mikel Askasibar, "Aska"

■ Herrera de la Manchán dago, 1.400 Km. joan-etorria.

■ 1988an errefuxiatua, eta 1991n atxilotua. 3 gartzelatan egona.

■ Atxilotetan tirokatuta, larri zauritu

zen: buruan tiro bat eta beste bat umeroan jaso zuen.

■ Bi jipoi jasan ditu, biak trasladoetan. Azken trasladoetan jipoitu egingo zuten beldurrez, golpeak arintzeko, txamarra sendoak eskatu dizkio familiari.

■ 4 gose greba egin ditu Euskal Herriratu izan dadin eta bere eskubideak errespetatzeko eskatuz.

■ Herreran vis a vis bisitetan leihatila batetik kontrolaten dituzte bera eta senideak.

Iñaki Arietaleaniz, "Bixkai"

■ 3 urte eta 2 hilabete gartzelan. Alcala Mecotik Ourensera eraman zuten, 1.400 Km. joan-etorria, 10.000 pta.

■ Alcalan sendagileak rebisioak pasiloan egiten zizkion. Vis a vis astean zirenez, familiak lana galtzen zuen. Telefonoz euskeraz hitz egitearren deiak kendu zizkioten.

tu izan balitz presoekin zein senideekin gertatzen dena ez litzateke egongo egoera hau. Gertatzen dena da informazioa beti isildu egin dela. Gaur egun kaleko elkartasuna da bide bakarra presoenganako zigorra bukatzeko. Bestetik, presoek buruz askotan hitzegiten da, baina inoiz ez da euren iritzia zuzenean zabaldu, beti norbaitek birugarrenen bidez jasotako iritzia dira”.

Esperantzarik ez

Gerturatzeaz ez dute esperantzarik. “Gure us-tez muntara butsa da. Izan ere, gerturatu ziren 30 preso, baina aspalditik gerturatuta egon behar zutenak ziren, bai gaisotasunengatik, bai kalean egotea zegokiela-ko. Mikel Osa horietako bat zen: kaleratu baino 15 egun lehenago ekarri zuten Coruñatik Huesca-



“Komunikabideetan hasieratik salatu izan balitz presoekin gertatzen dena, ez litzateke egongo egoera hau”.

ra. Horrelako ponpa eman zitzaion komunikabideetan, baina haren ondorena ez da kontatu: preso hauetariko ghebienak berriz leben zeuden tokira eraman dituzte. Orain badirudi beste fase bat datorrela, baina senideek beldurra dugu zer gertatuko den. Presoak Euskal Herrian ikusten ditugunean sinistuko dugu politikoak esaten ari direna egia den ala ez”.

Epaiketa ondoren baldintza berberetan jarraitu zuen.

■ Ourensen, 7 hilabetean, isolamendu hutsean dago. Patioan lau ordu ematen ditu, baina bakarrik. Hitzegiten ez ahazteko irriarekin hitz egiten hasita dago.

■ Eskutitz guztiak zabaltzen dizkiote. Lagunei berak idatzitakoak ere sarritan zabalik iristen zaizkie.

■ Gaur gaueko 12etan bukatuko du 25 eguneko gose greba.

Jabi Lazkano

■ 3 urte eta bi hilabete gartzelan. 3 gartzelatan egona, orain Alcazar de San Juanen. 1.200 Km. joan-etorria.

■ Alcalan epaiketaren zain eman zituen bi urteetan 22 ordu ematen zituen zeldan bakarrik. Zeldako leihoak txapaz estalita zeuden.

■ Euskarazko prentsa jasotzeko arazoak ditu; Berrigara ere retenitu egiten diote, lortzeko instantzia

berezi bat egin beharra dauka.

■ Egunero lau aldiz katxeatzen dute, zeldatik irtetzen den bakoitzean.

■ Euskal Herriratzea eskatuz daramaten borroka dela eta 2 parte ditu, batek 30 egun patiora irtetzea galerazten dio.

Jose Ramon Aiastrui, "Txerra"

■ 3 urte eta bi hilabete gartzelan, Alcala Mecon, 800 Km. joan-etorria.

■ 3 urteak isolamenduan daramatza: eguneko 22 ordu egiten ditu zeldan inor ikusteke.

■ Intsumiso izateagatik beste urte bateko kondena du.

■ Legeak dioenaren arabera kalean egon beharko luke, kondenaren hiru laurdenak beteta dituelako.

■ 3. gose greba egiten ari da.

Luis Etxeberria Pabon

■ Cordoban dago. 1.600 Km. joan-etorria.

■ 3 urte eta bi hilabete gartzelan.

■ 4 gartzelatik pasatu da, 3 gose greba egina. Hilabetez komunikazio greba bat egin zuen, isolamendutik atera zezaten eskatuz, jasaten zuen egoera larria salatzeko.

■ Jaengo gartzelan prebentibo zegoela hauteskundeetan botatzeko paperak eskatu zituen, baina hauteskunde ondoren iritsi zitzaizkion.

Iñaki Arenaza

■ Atzo egin zuen urtebete gartzelan, Alcala Mecon. Epaitzeko dago.

■ Gose greba bat eta txapeo bat egina.

Pedro Belastegi "Peito"

"Jendeari esan nahi diot, joateko presoak bisitatzerara, nahiz eta asko ez ezagutu"

45 urte ditu. 5 urte eta 7 hilabete kartzelan. Bista galdu du. Azaroaren 4an lanean hasiko da, lehengo lanean.

- Bost kartzelatan egon zara.

- Bai. Toki batera egiten zarenean trasladatu egiten zaituzte eta berriz hastea bezala da. Algecirasen 4 pertsona 10 metro karratutan geunden, eta stressa handia zen; 15 hilabetean vis a vis barik egon nintzen. Ocañan aislamenduan nengoen. Carabanchelen ez nuen bisik. Martutenen gure baldintzak ez ziren onak, baina bidaia motza da... ezin da esan hobeto ala okerrago non egon naizen, denak desberdinak dira.

- Zure kasuan egoera gogorragoa zen emaztea, Maite, ere barruan zegoelako?

- Batzuk anaia, beste batzuk ama, beste batzuk emaztea... baina preso guztiek dute arazoren bat. Alabak hain txikiak izatea fuertea izan da.

- Maite eta biok egun berean atxilotu, kondena bera ezarri, eta zu geroago aterata zara.

- Epaiketari bost pertsonari kondena bera ezarri arren, denok epe desberdinetan aterata gara. Hor demostratzen da legea ez dela betetzen. Legez kondena erdia betetzeari baldintzapeko askatasuna lor daiteke. Aspaldi egon behar nuen kalean.

- Trasladoetan arazorik izan duzu?

- Bi "kundetan" (trasladotan) jo naut. Ocañatik Martutenerakoan eta epaiketarakoan. Hala ere, azken urte terdian jarrera aldatu egin dute, mehatxuak eta gehiago egiten dituzte, baina jo ez. Atxilotu gintuztenean Donostiatik Madrilerako bidaia oso txarra izan zen: furgioan Bittore eta biok gindoazen, oso aurpegi txarra zuen, belztuta... eta hain beldurtuta zegoen, bidaia guztian ez zidan begiratu ere egin... Inpresio handia izan zen. 8 orduko bidaian ez zidaten txiza egiten laga, mehatxuak etengabeak izan ziren...

- Kartzelan bisita da aste gutziko poza?

- Bisita dena da. Bisita baino minutu batzuk lehenago gaizki egon arren, beti alai irtetzen zara, aste guztian horren zain egon zarelako. Jendeari esan nahi diot nahiz

eta preso bat asko ez ezagutu, joateko bisitatzerara; bisita guztiak hartzen dira pozik. Barruan bi lerro ere eskertu egiten dira! Idazten duenari tontokeria iruditu arren, edozer kontatzeko: atzo zer egin zuen, herriko kontuak, gauza berrien argazkiak... zenbat eskertzen diren!

- Funtzionarioekin zelako harremana?

- Enfrentamendu eta insulto asko dago, baina errespetarazi egiten gara, eta guri preso komunei baino errespeto gehiago digute. Jaenen, Ceutan... gauza okerrago dago.

- Bost urtean 6 gose greba?

- Gogorra da gose greba egitea, baina gose grebarik egin ezean, presoen egoera askoz okerragoa izango litzateke. Komunikabideetan esaten da egiten ez duenak kolektiborekin bat ez datorrelako

dela, baina ez da egia: egiten ez duenak osasun arazoengatik ez du egiten. Gose greba bat egindakoan izorrotuta geratzen da, eta batzuk egindakoan osasun arazoak sortzen dira. Kolektiboan elkartzun handia dago, eta gauzak oso garbi daude.

- Aldaketarik somatu duzu irten zarenean?


- Gazteak oso fuerte eta gogor datoz. Koktel bat botatzearen barruan sei urte pasatzeko prest daude. Presoarentzat oso garrantzitsua da jendea zenbateraino arriskatzen den eta kalean mugimendu hori ikustea. Bestalde, barruan jendeak garbi du urte batzuk pasa beharko dituela, borroka luzerako dela. Hiru urtean ezer ez bada lortzen kalean jendea desanimatu egiten da; barruan garbi dago luzerako dela, eta jendeak asumituta dauka. Lortuko dugu, baina epe motzean ez.

- Dispersioaren inguruan badago zeresana azkenaldian.

- Ikusten da PNVk zerbait egin nahi duela, baina guk garbi dugu dispersioarekin ez dela ezer lortuko, gurekin jolasten ari direla: presoak hona ekartzen badituzte euren komenientziagatik izango da.

- Herriko presoiei ze mezu bidaliko zenieke?

- Preso guztiei, baina bereziki Bergarakoei eta Antzuolakoei: besarkada bat, segitzeko orain arte bezala, laister lortuko dugula askatasuna.



"Antzuolarrei eta bergarakoei eskerrak eman nahi dizkiet emandako laguntzagatik"

Zenbat ordu pasatzen dituzu telebista aurrean?



Yanire Urbieta

Lau bat ordu egunean, eguerdian eta gauzez ikusten dut telebista, *Goenkale*, *Menudo es mi padre* eta *El principe de Bel Air* batez ere. Astebukaeran gehiago ikusten dut.



Jesus Gomez

Gauzez hiruzpalau ordu egoten naiz telebista aurrean. Kirol programak gustatzen zaizkit gehien. Astebukaeretan gutxiago ikusten dut, kalera irtetzen naiz eta.




Angel Luis Olabarria

Ez dakit, ezin dut esan, batzutan gehiago, bestetan gutxiago... baina ordubate inguru. Errelebotan lan egiten dudanez, batzutan gauzez, bestetan eguerditan...



Marta Lucia Silva

Batez ere gauzez ikusten dut telebista. Batzutan hiru ordu, bestetan bost..., ez dakit. Orain haurdun nagoenez astebukaeretan gehiago ikusten dut.



Martin Aseginolaza


Oso gutxi, saltzaile bezala nabil eta. Orduerdi bat edo horrela, gehiago ez. Kirola baldin badago gustatzen zait ikustea.



Maria Luisa Moreno

Pare bat ordu, gehiago ez. Batez ere gauzez ikusten dut telebista, astebukaeretan astebarruan baino gutxiago egoten naiz telebista aurrean.

**JAUNARTZEAK,
EZKONTZAK,
DESPEDIDAK, KARTA,
EGUNEKO MENUA,
LOGELAK**



ZABALA
JATETXEA • OSTATUA

Labegaraieta BERGARA
Telefonoak: 76 20 07 - 76 42 57

egizabal

BERGARA
☎ 76 12 28

oinetakoak eta poltsak

ARRASATE
☎ 79 66 01



Zertaz kexu emakumeok?

Munduaren sorrera (paradisuan): judutar tradizioaren arabera, Adanen lehen emaztea Lilit izan zen, berdintasunaren aldeko jarreragatik deabruarekin parekatua. Historiako lehen feminista.

Denboraren joanak hainbat mesede egin digula ezin uka dezaket, baina, denborak berak ere badaki saldukeriatan ibiltzen, beraren atzaparretan itota gelditu baikara emakumeok eta gure historia. Amnesia kolektibo horrek hordituta ez bada, gure lorpenak eta ekintzak balore sexistek ziprztinduta ageri zaizkigu.

XV. eta XVI. mendeak (Europar): milaka emakume izan ziren erahilak. Beren delitu bakarra: sorginkeria.

Baina zuek (hainbeste Leonor, Margarita, Juana... ezin aipatu zuetako batzuk bakarrik) gizarteak zuengan inposatutako arauak gaitzetsi zenituzten, zuen sexuak mugatu eta baldintzatutako etorkizunari uko eginez askatasunari segika, gaur egungo gizakion mesedetan.

XXI. mendearen atarian (Euskal Herrian) 1996ko urriaren 16an (ETB 2). Nahiz eta, gizonen gaitasun bera izan, lanean %20 gutxiago jasotzen dugun, gure askatasun sexualari muzin egiten jarraitzen zaion eta nahiz eta idatzi guztietan gure izatea ukatzen jarraitzen den "gizon" hitz generikoaren erabileraz, emakumeon kezka bakarrik hilerio tanpoiak erostea eta Brad Pitten koalitate fisikoak omen dira.

Zertaz kexu garen emakumeok, Urrusolo jauna? Guztion poltsikotik ordaintzen dugun telebista publiko batek horrela jokotzeaz adibidez, emakumeon irudi distorsionatu eta lotsagarri bat emanez. Feminismoaren borroka gaur egun denboraren joan etorrian eratu eta indartutako estereotipoen azpian lurperatutako benetazko emakumea ezagutzera ematea da.

Larraitz URIBESALGO



Eibar-Gasteiz kulebroia

Ia ia jaio ginenetik entzuten ari gara Eibar-Gasteiz bidearen kontua, lehen Maltzaga-Urbina. Eta orain, badirudi, gaia berriz eskuartera bueltatu zaigula; arazoa: dirua, bidearen-finantziarioa.

Jose Julian Irizarrek, Errepideetako Foru Diputatuak, aste honetan ziurtatu du Gipuzkoak bakarrik jarraituko duela autopistaren proiektuarekin, bestelako euskal erakundeetan eta Gobernu Zentralean bidea eraikitze laguntzarik topatzen ez badu.

Seguruenez, Deba Garaia eta Beheko enpresendako pozgarria izango da berri hori, baina oso kezagarria da

Arabako Diputazioarentzako bide horrek lehentasunik ez izatea. Ea diputazioek aurrekontuak lotzen dituztenean kontuan hartzen duten bide hori oinarritzeko/hil ala bizikoa dela inguru honetako ekonomi-garapenerako.

Obra konplikatu da eta eraikitze orduan gauza asko kontuan hartu beharrekoak, ingurugiroarekiko eragina batik bat; horregatik izango da hain garestia: 100.000 milioi pezeta. Dirutza handia, baina beste herri batzuekin batera, Bergararen opor-tasunari lagunduko diona, dudarik gabe.

Gure alkateak autopistaren alde gogor egitera animatu behar ditugu, gure etorkizuna horren menpe baitago neurri handi batean.

Marta MORAL

BERGARA



LAGUN ARO

ASEGURUAK



AGENTEA-DELEGATUA

Ramon Iraegi Eguren

Ramon Maria Lili, 6 behea 20570 BERGARA (Gipuzkoa)

Telefonoak: 76 23 30 • 76 41 54 / Faxe: 76 41 54

ORDUTEGIA: Asteleheneetik ostiralera: 9.00-14.00 eta 16.00-20.00

Larunbatetan: 9.00-13.00

■ **Baba-jana Gorlan**

Gorla elkarteko eta **Udal Musika Bandako** kideek baba-jana izan zuten domekan Gorlan bertan. Datorren urtean ospatuko den elkartearen 50. urteurrenari begira, Alfredo González Chirlaque Bandako zuzendariak elkarteko ereserkia konposatu zuen eta Bandak Pazkuetan emandako kontzertuan egin zen estreinaldia. Orduetik elkartea *zorretan* zegoen Bandako kideekin eta, beraz, domekan



bazkari batera gonbidatu zituzten. Guztira, 60 bat lagun izan ziren bazkaltzen eta jai-giroan primeran pasatu zuten elkarrekin. Bazkalostean, ziuurrenik, datorren urteko urrezko eztaietarako ideiak aztertuko zituzten...

ARGAZIAK: KIÑU



■ **Ezkontzak Udaletxean**

Dagoeneko **sei ezkontza** egin dira Bergarako Udaletxean pasa den maiatzean alkateei ahalmen hori eman

zitzaientetik. **Victoriano Gallastegi** alkateak bost ezkontza ospatu ditu eta bestea **Mikel Eguren** zinegotziak egin zuen, lagun batzuren ezkontza berak egitea alkateari eskatu ondoren. Ezkontza



nahiko motzak izaten dira Udaletxeko Pleno Aretoan

egiten direnak, alkateak artikulua batzuk irakurri eta ezkongaiak idatzi batzuk sinatuz. Lehen ezkontza uztailaren 15ean egin zen eta azkena joan zen zapatuan, **Eli Aranburu** eta **Markos Jauregi** bergararren artekoa hain zuzen. Zorionak bieii!

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

☎ 76 19 54 BERGARA

☎ 79 91 82 ARRASATE

igok eta Txomin


Pintura orokorrean.

Paper, tela, binilo, kortxo... estaldurak.

Gotelesa, iztukuak eta bestelako imitazioak.

ANTZUOLA
☎ 76 60 39

BERGARA
☎ 76 19 98



Irizar, 2

☎ 76 14 95

JAUJA KIROLAK



■ **Ikasle frantziarrak Bergaran**

Bergarako **Miguel Altuna** eta **Reimseko Libergier institutuek** egiten duten elkartrukearen barruan, zapatuan frantziar ikasle talde bat iritsi zen Bergarara. Reimsetik etorritako 13 ikasleek programa zabala izan dute egunotan: hemengo ikasleen familietan egokitu ondoren, astelehenean bisita gidatua izan zuten Bergara ezagutzeko eta jarraian Victoriano Gallastegi alkateak eta Luis Abajo eta Koldo Pereira zinegotziek harrera egin zieten Udaletxeko Pleno aretoan; asteartean Bilbora joan ziren; asteazkenean Lacor eta Torunsa enpresak bisitatu eta arratsaldez Eroski ezagutzera joan ziren, Elorriora; ostegunean Donostiara; ostiralean Gasteizera; zapatua eta domeka libre izango dituzte eta astelehenean, berriz, Reimsera itzuliko dira. Miguel Altuna Institutuko enpresaritzak eta administraritzak ikasleek Frantziara egingo duten bisitak ez du fetxarik oraingoz.



■ **Wonderbrass**

Wonderbrass Quintet haize boskoteak kontzertua eskainiko du domekan eguerdiko 13:30etan **Kaixo** tabernako terrazan. Musika Eskolako ikasleek, haize instrumentuekin duten trebetasuna erakusteko aukera izango dute igandeko kontzertuan. Eguraldiak laguntzen badu, toki eta une aproposa, bermuta eskuan, musika entzuteko.

Zertan dihardute ba?



Gema Zenitagoia 32 urteko bergarra La Caixak Barrenkalen zabaldu duen bulegoko zuzendaria dugu. Gema Zenitagoia Enpresaritzak ikasketetan lizentziatua da eta aurretik Bergarako BBV eta Bankinterreko bulegoetan izan da lanean. Orain hilabete inguru zabaldu zen Bergarako La Caixako bulegoa eta Gemaren hitzetan, *"basiera, normala denez, gogorra izaten da baina ilusio haundiz ekin diogu. Bulegoa era guztietako bezeroei zuzenduta dago: enpresak, partikularrak..."*. Oraingoz bi lagun ari dira lanean Bergarako bulegoan.



HAIZETEL
Telefonia mobila

Simon Arrieta plaza, 6. Tfnoa eta faxa: 76 40 68

ZUBIETA
elektragintza

MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK

Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48

ARGI PLASTIC

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...
Leihoak, atek, manparak...

Eska ezazu aurrekontua
konpromezu barik



Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA
Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

Jabier Lazkano

Javier Lazkanok (51 urte) Maria Angeles Bikendi bere emaztearekin (hiru seme-alaba dituzte) egiten du lan Onena tindategian. Onena orain dela 60 urte baino gehiago zabaldu zen eta labadora eta plantxek herritarren jantzi dotoreak jasotzen jarraitzen dute.

- Nolako bezeroak dituzue tindategian?

- Era guztietakoak.

- Emakume ala gizonezko gehiago?

- Gehienak emakumeak.

- Nolako jantziak ekartzen dituzte?

- Jantzeko erropak, etxean garbitzen ez direnak: txaketak, berokiak...

- Urteko zein sasotian lan gehiago?

- Bi sasoi izaten dira: udazkena (eguraldi txarra hasten denean) eta udaberria.


- Bergararrak *presumiduak* al gara?

- *Famia* beti izan dugu baina gazteen aldetik galtzen ari da hori.

- Deterjenterik onena, zein?

- Tindategian industrialak erabiltzen ditugu.

- Plantxa egiten badakizu?



“Mendizalea naiz eta Aizkorri da gustokoen dudan mendia; gimnasioan eta korrikan ere aritzen naiz. Barçakoa naiz txikitatik, eta Ronaldo eta Romarioren artean, lehenengoarekin geratzen naiz.”

- Ez, baina ikasten ari naiz.

- **Jantzirik gustukoena?**

- Momentuak izaten dira: batzutan dotore jantzea gustatzen zait, txaketiakin, beste batzutan *sport...*

- **Kolore bat?**

- Urdina.

- **Forman egoteko, zer?**

- Korrika egin, gimnasia eta mendia.

- **Behobia-Donostia korritzeko asmorik?**

- Ez, ez nago prestatuta.

- **Mendirik gustukoena?**

- Aizkorri.

- **Nola Barçaren jarraitzailea?**

- Neuk ere ez dakit, baina mutikotatik sentitu dut hori.

- **Ronaldo ala Romario?**

- Ronaldo. Biak fenomenoak dira baina Romario nortasun aldetik nahiko umea da.

- **Cruyff ala Robson?**

- Robson, Cruyff diktadorea izan da.

- **Azkargorta, zure lehengusua, Real entrenatzeri iritsiko da?**

- Izan leike, beti izan du ilusioa...

- **Kiniela egiten duzu?**

- Bai. Behin 13 asmatu nituen, baina diru gutxi jaso nuen.

- **Hobby bat?**

- Mendiaz gain, zinea eta irakurtzea.

- **Azkenaldian ikusitako filmerik onena?**

- Fargo.

- **Aktoresa bat?**

- Meryl Streep.

- **Planeta saria nork irabazi du?**

- Bai, telebistako hori..., Schwartz.

ileapaindegia

eder gela

disdira

Masterreka, 7 • Tfnoa: 76 00 55

Iturkintz Berri

INSTALAZIOAK: Iturkintza, Berogintza, Gasa

Amillaga, 1 (B Pabiloia)

☎ 76 28 04

BERGARA



**Matxiategi
Elektragintza
C.B.**

**ELEKTRIZITATE
MATERIALEN
SALMENTA ETA
INSTALAZIOA**

Fleming Doktorea, 5
☎ 76 19 94

**EGUREN
GESTORIA**

Maria Pilar Eguren Díez
Kolegiatutako administrazio gestorea
Simon Arrieta Plaza, 3 behea
☎ 76 21 65 / 76 24 45

ETXEBIZITZA

Garajea salgai Boni Las-
kurainen. ☎ 76 25 61.

Haur bat duen bikote ba-
tek pisua alokairuan hartu-
ko luke. ☎ 76 32 70.

Bilbon pisua osatzeko jen-
dea behar da. ☎ 76 03 58.

Garajea salgai San Loren-
tizon. ☎ 76 58 28.

Pisua salgai Espoioan.
☎ 76 58 14 / 79 83 45.

Garajea salgai Zurrade-
ron. ☎ 76 02 89 (gauzez).

Garajea salgai Bolun.
☎ 76 54 98.

Pisua salgai San Loren-
tizon. ☎ 76 51 45.

Donostian (Amaran) pi-
sua osatzeko 2 neska behar
dira. ☎ 76 17 20 / 27 18.

Garajea saldu edo alokai-
ruan jarriko nuke Burdiña-
ten. ☎ 76 40 03.

Osintxun buhardilla bat
salgai. Bizitzeko egokia.
Prezio oso merkea.
☎ 76 15 36.

Pisua salgai Mugertzan.
Amueblatua. ☎ 76 53 79.

Frontoian pisua salgai.
160 m2. ☎ 76 24 42.

Pisua salgai edo alokairuan
Barrenkalen. ☎ 78 70 30.

Garajea (2 plaza) salgai
Ibargarain. ☎ 76 28 33.

DENETARIK

Peugeot 505 kotxea (SS-
S) salgai. ☎ 76 30 01.

Fagor termoa (30 litro)
salgai. Berria. ☎ 76 52 31.

Zornotzara egunero jo-
an-etorria egiteko kotxea
behar dut. ☎ 76 17 04.

Soka boskoteak ezkon-
tza elizkizunetan jotzen du.
☎ 76 57 80 (arratsaldez).

Leioako unibertsitatera
arratsaldez joateko kotxea
behar dut. ☎ 76 50 11.

Dantza sueltoan ikasteko
taldea osatu nahi da.
☎ 76 22 77 (gauzez).

Donostiara joan-etorria
(17-22.00) egiteko kotxea
behar dut. ☎ 76 46 26.

Ford Scorpio kotxea (SS-
W) salgai. ☎ 76 28 07.

Macintosh LC III ordena-
gailua salgai. ☎ 76 45 69.

Citroen C.15 kotxea (VI-N)
salgai. ☎ (945) 27 59 30.

Taberna traspasatzen da.
☎ 76 01 95.

Mobylette GAC motorra
salgai. ☎ 76 03 01.

2. eskuko **bi solarium** sal-
gai. ☎ 74 12 82/74 19 23.

Portaroiola (komertzio-
takoa) salgai. ☎ 76 52 31.

LANA

Neska euskalduna behar
da etxeko lanak/haurrak
zaintzeko. ☎ 76 57 93.

OHO klaseak ematen ditut.
☎ 76 10 17 (Rosa).

Ingeles klaseak.
☎ 76 40 89 (Gemma).

Lanak ordenadorez pasa-
tzen dira. ☎ 76 15 63.

Neska batek etxeko lanak
egin edo haurrak zainduko
lituzke. ☎ 76 30 52.

OHO eta ingeles klaseak.
☎ 76 17 18 (Jesus).

Mate eta fisika klaseak
ematen dira. ☎ 76 03 72.

OHO eta BBBko klaseak
ematen ditut. ☎ 76 33 26.

Etxeko lanak egiten ditut
(orduka). ☎ 76 48 39.

Haurrak edo helduak
zaintzen ditut. ☎ 76 45 93.

Haurrak zaindu edo e-
txeko lanak egingo nituz-
ke. ☎ 76 57 01.

Erizain batek arratsaldez
lan egingo luke.
☎ 76 54 52 (Jone).

Majisteritzan diploma-
tutako neska batek haurrak
zaindu edo klaseak eman-
go lituzke. ☎ 76 48 53.

Unibertsitate mailako
klaseak. Estatistika, BBB
eta UBI. ☎ 76 35 37.

Astebukaeretan etxeko
lanak egingo nituzke.
☎ 76 50 46 (eguerdiz).

Neska euskaldun batek
etxeko lanak egin edo hau-
rrak zainduko lituzke.
☎ 76 31 96.

**LONBIDE
OINETAKOAK**

Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 BERGARA

Siaska

*Dena zure
haurrarentzako*

San Pedro, 10 ☎ 76 10 39

REMENTERIA**Altzariak**

Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguan

Artekale, 6 Tfnoa: 76 13 29

IBARGUREN PENTSUAK

Biona pentsuen biltegia
Bioter produktoak eta haziak

San Pedro, 3 Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

fundangoa eta arin-arina

DANTZA

ikastaroa

AZAROAREN 13tik
MARTXOAREN 26ra

ASTEAZKENETAN
19:30etatik 21:00etara

PREZIOA
Bazkideak: 5.500 pta
Gainontzekoak: 6.000 pta

MATRIKULA EGITEKO EPEA
Azaroaren 8ra arte

Jardun Elkartea
Masterreka 13
☎ 76 08 19 - 76 36 61



Irakasleak

EDU MURUA eta AMAIA AGIRRE

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologiaren unitatea
- Menopausia
- Haurdunaldiaren kontrola
- Zitologiak
- Etab.

Profesionalen osatutako taldea emakumearen zerbitzura

Doktoreak:
CRISTOBAL
ESTOMBA
GOMEZ
MURGIENDO
OTALORA
RUIZ



Zerkaosteta, 17 etxabea ARRASATE. Tfnoa: 79 20 18

1 TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. ERROTAGAIN	9	3	15	4
2. A ZE FLAXA ETXAGI	9	3	13	3
3. BILDURBAREK OPEL/LAM	7	3	17	8
4. OGIZUN	6	2	11	5
5. JAUJA OH ZEREZOS	6	3	12	9
6. BAR CANALEJAS	4	3	11	10
7. AZPEITXI JATETXEA	3	2	8	9
8. ARLOTEAK OILAGORRA	3	3	12	9
9. MONGATXURRA	3	3	12	10
10. UFALA	1	3	8	15
11. ORTZI	1	3	3	13
12. MADURA INDUSTRIAS GOL	0	2	0	9
13. PAGOMENDI	0	3	3	19

2 TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. KAYAK OS JARDINEIROS	9	3	14	4
2. ARTUSAMAK BERGATRANS	9	3	18	6
3. ETXAGI	6	2	7	5
4. UVE BIKOITZA JAM	6	3	7	11
5. INDARGORRI	4	3	3	3
6. LA JUVE	4	3	3	3
7. ERI	3	2	6	5
8. EZINLEIKE	3	3	7	9
9. AGIRREBEÑA JATETXEA	3	3	7	8
10. SOROPOTROAK	3	2	8	7
11. AGINASPI	0	2	3	8
12. HALTZARI	0	3	5	11
13. AUTOBEREZI	0	2	4	13

3 TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. PJS	7	3	9	4
2. GUADALEST	6	2	7	2
3. MOSKIS	6	2	8	3
4. FAC	6	3	12	6
5. IGANDEKOAK	6	2	10	3
6. JAKINA PATXARAN TEAM	4	3	8	11
7. EH BITERRAK	4	2	3	2
8. NEKROFIKOS	3	2	4	8
9. TXIPIRON	1	2	3	6
10. NAHIKARI HOOLIGANS	0	1	1	2
11. ARI ARI	0	1	1	2
12. MRW	0	2	4	7
13. CONSTRUCCIONES BERGARA	0	3	5	15

4 TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. MANITOU	9	3	21	6
2. ARBE KIROLAK	9	3	18	4
3. OSINTXU	7	3	11	3
4. PANORAMIX	4	2	4	3
5. POLIDEPORTIVO TABERNA	4	3	8	11
6. ETENGABE	3	2	5	6
7. PITTIXAK	3	3	11	10
8. PATA NEGRA	3	3	6	14
9. KOMANDO PIPERRAK	3	3	11	16
10. SLO	3	3	5	10
11. XURRUPAK	3	3	6	15
12. MATXAKATEGI	3	3	3	5
13. ALDOKA MALDOKA	2	3	6	8
14. AMILOTX	1	3	3	7

Jokoz kanpo



Jose Gomez "Pesca"
BAR CANALEJAS

ZER MODUZ TXAPELKETA?

Beste urte batzuekin konparatuz, aurten hasiera irregular samarra izan dugu txapelketa; beste urte batzuetan hobeto hasi gara.

ZURE TALDEAREN GAUZARIK ONENA ETA TXARRENA?

Indibidualitate asko ditugu, kalitate handiko jokalariek, eta hori da talde duen gauzarik onena, eta baita txarrena ere.

KANPORATUA IZAN ZARA INOIZ?

Bai, behin, arerioa heltzeagatik.

PARTIDUAK GOIZEZ ALA ARRATSALDEZ?

Berdin zait.

TXAPELKETAKO TALDERIK ONENA?

Errotagain eta Bildurbarek Opel/Lam.

AURELARI ONENA?

Fernando Salinero.

SARTU DUZUEN GOLEADARIK HAUNDIENA?

Guadalest taldeari 16 gol sartu genizkion.

ETA JASOTAKOAK?

Errotagainek 8 sartu zizkigun.

ZE POSTUTAN AMAITZEA ESPERO?

8 onenen artean sartzea espero dugu, Play-offak jokatzeko.

LIGA PROFESIONALEKO JOKALARIRIK ONENA?

Ronaldo.

MUNDUKO KIROLARIRIK ONENA?

Ronaldo.

EUSKAL HERRIKOAK?

Javier De Pedro.

JATEKO PLATER BAT?

Rapea.

EMAITZAK

A ZE FLAXA ETXAGI-ORTZI	5-0
PAGOMENDI-ARLOTEAK OILAGORRA	1-8
MONGATXURRA-JAUJA OH ZEREZOS	4-5
ERROTAGAIN-UFALA	4-0
OGIZUN-MADURA INDUSTRIAS GOL	3-0
BAR CANALEJAS-BILDURBAREK OPEL/LAM	4-4
SOROPOTROAK-ETXAGI	3-4
ARTUSAMAK BERGATRANS-HALTZARI	4-2
AGINASPI-UVE BIKOITZA JAM	2-4
LA JUVE-INDARGORRI	0-0
AGIRREBEÑA-EZINLEIKE	1-4
AUTOBEREZI-KAYAK OS JARDINEIROS	3-11
IGANDEKOAK-FAC	4-2
PJS-EH BITERRAK	1-1
MRW-GUADALEST	1-3
NEKROFIKOS-CONSTRUCCIONES BERGARA	6-3
PATA NEGRA-ARBE KIROLAK	3-11
ETENGABE-SLO	4-1
OSINTXU-MATXAKATEGI	3-1
XURRUPAK-PITTIXAK	1-6

PARTIDUAK

Zapatuan barruan

09:00: ALDOKA MALDOKA-AMILOTX • OGIZUN
10:00: KOMANDO PIPERRAK-PANORAMIX • OGIZUN
11:00: OSINTXU-PATA NEGRA • OGIZUN
19:00: SLO-PITTIXAK • MATXAKATEGI
20:00: XURRUPAK-MATXAKATEGI • PITTIXAK

Zapatuan kanpoan

09:00: AUTOBEREZI-EZINLEIKE • OGIZUN
10:00: KAYAK OS JARDINEIROS-UVE BIKOITZA • OGIZUN
11:00: ERI-ETXAGI • OGIZUN

Domekan barruan

09:00: MOSKIS-TXIPIRON • NAHIKARI HOOLIGANS
10:00: NAHIKARI HOOLIGANS-C. BERGARA • ARI ARI
11:00: GUADALEST-ARI ARI • C. BERGARA
16:00: EH BITERRAK-PATXARAN TEAM • NEKROFIKOS
17:00: IGANDEKOAK-NEKROFIKOS • PJS
18:00: PJS-FAC • POLIDEPORTIVO TABERNA
19:00: ETENGABE-POLIDEPORTIVO TABERNA • MANITOU
20:00: MANITOU-ARBE KIROLAK • ETENGABE

Domekan kanpoan

09:00: MONGATXURRA-BILDURBAREK OPEL/LAM • OGIZUN
10:00: OGIZUN-ERROTAGAIN • MADURA INDUSTRIAS GOL
11:00: AZPEITXI JATETXEA-MADURA • ERROTAGAIN
16:00: A ZE FLAXA ETXAGI-UFALA • ORTZI
17:00: PAGOMENDI-ORTZI • A ZE FLAXA ETXAGI
18:00: JAUJA OH ZEREZOS-ARLOTEAK • PAGOMENDI

OHARRA

Euria egiten baldin badu, kanpoko partiduak suspenditu egingo dira.

TXINPARTAK

Fontsi Memoriala

Fontsi Memorialaren VII. edizioa zapatuan hasiko da 15:00etan jokatu den mendiko bizikleta lasterketarekin. Nagusiek 36 kilometroko ibilbidea egin beharko dute eta 14 urtez azpikoek, berriz, 16 kilometrokoa. Txirringulak federatuak 400 pta. ordaindu beharko dituzte eta gainontzekoek 600 pta. Ibilaldian parte hartzeko derrigorrezkoa da kaskoa eramatea. Lasterketa Lokatza elkarteak antolatu du eta zirkuitoa beste urte batzuetakoa izango da.

Lokatza txirringulak berrien bila

Datorren urtean Lokatza txirringulak elkartearen infantil, kadete edo jubenil mailan aritu nahi dutenek atea zabalik dituzte. Astearte eta ostegunetan, 18:30etatik 20:00etara Ipintza institutoko gimnasioan entrenatzen dute eta ostegunetan 20:00etan, elkarteak Seminarioan duen lokalean eman daiteke izena.

Behobia-Donostia lasterketarako autobusa

Behobia-Donostiara joateko autobusa antolatu du Zaleak atletismo taldeak. Izena emateko dietu 76 32 39 telefonora (Alex).

Udalarekin haserre dira futbito txapelketakoak

Labegarrietako futbito txapelketan jokatzeko duten taldeak Udalak ezarritako urteko kuotaren %25aren igoeraren aurka agertu ziren eta, ondorioz, igoera hori ez ordaintzea erabaki zuten joan zen asteartean egindako asanbladan. Iaz futbito txapelketa antolatzen duen Lagunak elkarteak 12.000 pta taldeko ordaindu zizkion Udalarari eta igoerarekin, taldeko 15.000 pta ordaindu beharko lioke.

Martitzenean Kultur Etxean ia talde guztietako ordezkariak egindako bozketaren ondoren, aho batez, ez ordaintzeko erabakia hartu zuten. Lehenik eta behin igoera desproporzionatua dela adierazi dute Lagunak futbito elkarteak eta horrez gain Labegarrietako kiroldegian egin berri diren konponketa lanak kritikatu dituzte. *"Kanpoko kantxan egindako berrikuntzak ez dira txapelketaren onerako izan, tenis pista berriarekin kantxa moztu egin dute, euria egiten duenean ezin da jokatu, eta porteriak arriskutsuak dira"* diote Lagunak elkarteak.

Halaber, Udalak diskriminatu egiten dituela diote: *"Udalari dirua ematen diogun kirol elkarte bakarra gara eta kiroldegian sobran dauden orduak ematen dizkigute. Gainera ikasleen eta gazteen artean kirola bultzatzen ari gara eta BKEri ere laguntzen diogu jendea forman mantenduz"*. Azkenik Lagunak el-



Asteartean futbito txapelketako taldeek egindako batzarra.

karteak Udalarekin dituen arazoak sentitzen dituela eta arazoari irtenbidea ematen saiatuko direla jakinarazi du.

Akordio batera heldu

Iñaki Ugarteburu, Udal Kirol Zerbitzuko teknikariak, beste iritziz bat du gaiaren inguruan. Ugartebururen iritziz, bereizketa egin behar da aisialdian kirola egiteko lanean diharduten, futbito txapelketa antolatzen duen Lagunak elkartearen esate baterako, eta gaztetxoaren artean kirola bultzatzeko lanean ari diren talde federatuen artean (Bergara Kirol Elkarte, Gimnasia Erritmiko taldea...).

Udalak Lagunak elkarteari planteatu dion igoerari buruz, Udalbatzak Plenoan hartutako erabakia dela esan dio Berrigarari Iñaki Ugarteburuk, *"bala ere, prest gaude Lagunak elkartearekin berba egiteko borren pre-*

zioaren inguruan akordio batera iristeko" adierazi du Ugarteburuk.

Kiroldegia kanpoaldean egin den kantxa berriari buruz, berriz, zera esan du: *"onartzen dut euria egiten duenean zorua labankor geratzen dela, baina instalatu zuten enpresak ziurtatu dit arazoa behin-behinekoa dela eta epe batean konponduko dela. Kontua da hasieran jabetza antzeko bat eman ziotela zorua hobeto gera zedin, baina denborarekin jabetza hori desagertu egingo da"*. Esan behar da kanpoko kantxa berrizteak ia bost milioi kostatu zaiola Udalarari. Porterien kasua, oster, mantenimendu kontua dela adierazi du kirol teknikariak: *"sareak erraz apurtzen dira eta bestalde, horrelako porteriak San Martin ikastetxean jarri ziren orain dela bi urte eta erantzun ona eman dute"*.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

◆ **Bergara-Roteta**

Preferentea.
Domeka. 15:45. Agorrosin.

◆ **Bergara-Urki A**

2. mailako jubenilak.
Domeka. 11:15. Ipintza.

◆ **Bergara-Idiazabal**

Lehen mailako infantilak.
Domeka. 10:00. Ipintza.

SASKIBALOA

◆ **Bergara-Ordizia**

Senior mutilak.
Zapatua. 16:15. Kiroldegia.

◆ **Bergara-Zarautz**

Jubenil mutilak.
Zapatua. 12:15. Kiroldegia.

◆ **Bergara-Euskalduna**

Kadete mutilak.
Zapatua. 10:00. M. Lagundia.

ESKUBALOA

◆ **Bergara-Donibane**

Kadete neskek.
Zapatua. 18:00. Kiroldegia.

◆ **Bergara-Urola**

Jubenil neskek.
Domeka. 12:15. Kiroldegia.

PILOTA

◆ **Bergara-Azpeitiko Ilunpe**

Kluben arteko txapelketa.
Jubenil maila banaka.
Eguakitza. 22:30.
Udal Pilotalekua.

◆ **Bergara-Azpeitiko Ilunpe**

Kluben arteko txapelketa.
Jubenil maila binaka.
Eguakitza. 23:00.
Udal Pilotalekua.

Mikel Leturia

Lokatzako gurpiletan murgilduta

Lokatza txirrindulari elkartea 96-97 denboraldia prestatzen hasi da dagoeneko. Herriko ziklismo taldeari buruz berba egiteko, Mikel Leturiarekin, jubenil mailako entrenatzaile eta elkarteko txirrindulari izandakoarekin elkartzu gara.

- **Zela prestatzen duzue aurrendenboraldia?**

- Bizikleta gutxi ikutzen da. Aurrendenboraldian aintxintxikan, gimnasioan, igerian eta mendian ibiltzen gara. Jubenilak astean zehar 5 egun entrenatzen dute eta gaztegoek egun bat gutxiago. Aurrendenboraldia urtarril hasierara arte egiten dugu eta ondoren, gimnasia eta bizikleta tarteak ditugu.

- **Aurrendenboraldian bizikleta ia ez duzue hartzen, ez da aspergarria?**

- Jubenilek irailean bukatzen dute denboraldia eta ondo etortzen da deskonektatzea.

- **Aurrez ondo prestatzen denak denboraldi ona egiten omen du.**

- Oinarri sendoa izatea derrigorrezkoa da. Esaten duten moduan, "los exitos del verano se consiguen en invierno". Aurrendenboraldiarekin gorputzak kapazitate gehiago dauka entrenamendu intentsiboak egiten direnean emaitza hobek ateratzeko. Horregatik, batez ere, erresistentzia eta indar mantentzen dituzte.

- **Zer askituko dute**

Lokatzan sartuko diren kirolariek?

- Kuadrilagatik sartzen dira gehienetan eta, hasieran, guztiak lagunak direnez, disfrutatzea da helburu nagusia jubenil mailara arte. Euskal Herriko toki asko ezagutzeaz gain, jende asko ere ezagutzen da. Afizionatu maila desberdina da eta disziplina gogorra eskatzen du.


- **Txirrindulari zinean Lokatzan aritu zinenetik hona asko aldatu al da elkartea?**

- Lehen bizikletagatik dena sakrifikatzen zen. Orain, aldiz, bizikletaz gain beste kirol batzuk

egiten dituzte eta uste dut hori dela gomendagarriena edade horietan. Badira kirol batzuk konpaginatu daitezkeenak eta danetik egin behar da eta poliki-poliki espezializatzen joan.

- **Entrenatzeko sistemak asko aldatu al dira?**

- Bai, orain pulstosome troak, esfortzu probak... sartu dira eta baliabide gehiago daudenez errendimendu hobea ateratzen da. Urtean 2 edo 3 mediku azterketa egiten diegu txirrindulariei nola dauden jakiteko eta horren arabera entrenamendua prestatzeko.



"Urtean 2 edo 3 mediku azterketa egiten diegu txirrindulariei".

"Udan sasoitsu egoteko neguan ondo prestatu behar dira ziklistak"



Argazkia: Iñaki Andueza

Korrika Bergaran

Bihar zapatuan *Behobia txikia* antxintxika proba jokatu da Bergaran eta proba girotzeko orain 15 bat urteko antxintxikalari talde baten erretratua ekarri dugu. Bertan agertzen direnek urte hartako Korrikan hartu zuten parte eta hor ditugu, sasoiatsu, Osintxutik zetorren Korrikaren erreleboa hartzeko zain.

Bihar, esan bezala, Bergaratik Soralezera bitarteko lasterketa izango da goizeko 10:30etan, Agorrosinetik hasita. Ea argazkiko zenbat animatzen diren parte hartzera. Jakin badakigu argazkian agertzen den batek ezinbesteko konpromezua duela. Beraz, hurrengo urteko probarako gonbidapena luzatuko diogu berari...

Horra hor argazkian agertzen direnen izenak, ezkerretik eskumara:

Nerea Vicente, Iñigo Lonbide, Iñaki Irizar, Iñigo Garitano, Miguel Angel Elkorobere-zibar, Joakin Iturbe, Jose Balentziaga, Mikel Andoni Olabarria, Iñaki Andueza, Iñaki Aginagalde, Iosu Mujika, Aitor Aginagalde, Imanol Arregi, Enrike Txintxurreta, Jose Ramon Kortabarria "Moztu", Iñigo Elkoro, Xabier Alberdi, Aitor Garcia, Asis Iriondo, Mikel Alberdi, Lorea Alberdi, Patxi Retolaza, Amaia Aranzabal, Nekane Aranzabal eta Jaione Larrañaga.

Industria
hornikuntzak

U
UNIFE

Industriaren
alde

MEMESA S.L.

Nafarroa etorbidea, 9 ARRASATE. ☎ 79 42 22 • Faxa: 76 47 89
Santa Kruz, 25 ARETXABAETA. ☎ 77 11 75 • Faxa: 77 13 08



San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21

umelaga
JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!!

GIARTZU

G I M N A S I O A




	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
07:30	AEROBIKA	MANTENIMENDU AEROBIKOA	STEP-A	MANTENIMENDUA, FITNESS-A	AEROBIKA, STEP-A, SALTSA
08:15	AEROBIKA	MANTENIMENDU AEROBIKOA	STEP-A	MANTENIMENDUA, FITNESS-A	AEROBIKA, STEP-A, SALTSA
09:00	AEROBIKA	MANTENIMENDU AEROBIKOA	STEP-A	MANTENIMENDUA, FITNESS-A	AEROBIKA, STEP-A, SALTSA
10:00	JUBILATUAK	JUBILATUAK		JUBILATUAK	
11:00	AEROBIKA, STEP-A	MANTENIMENDU AEROBIKOA	AEROBIKA, STEP-A	MANTENIMENDUA, FITNESS-A	AEROBIKA, STEP-A
15:00		AEROBIKA, STEP-A		MANTENIMENDU AEROBIKOA	
17:00	AEROBIKA	MANTENIMENDU AEROBIKOA, FITNESS-A	STEP-A	MANTENIMENDU AEROBIKOA	AEROBIKA
18:00	KARATEA	STEP-A	KARATEA	MANTENIMENDU AEROBIKOA	KARATEA
19:00	AEROBIKA	MANTENIMENDU AEROBIKOA, FITNESS-A	STEP-A	MANTENIMENDU AEROBIKOA	AEROBIKA, STEP-A
20:30	AEROBIKA, STEP-A	MANTENIMENDUA	AEROBIKA, STEP-A	MANTENIMENDUA	20:00: AEROBIKA, STEP-A

MUSKULAZIOA EGITEKO ORDUTEGIA: 07:30-14:00 ETA 14:30-22:00

☎ 76 35 71

MUSKULAZIOA



Shotokan

Gensey Ryu

KARATEA

Shotokay

Wado Ryu

Kiokushinkay

Shito Ryu

Goju Ryu

HALTZARI

FAGOR ALTZARIEN BANATZAILE BAKARRA

Bolu 24 behea BERGARA (Gipuzkoa). Telefonoa eta faxa: (943) 76 30 57



FILA modeloa



NALIA modeloa



ONDA modeloa



OXFORD modeloa



ACQUA modeloa



SAVOY modeloa



FAGOR

Sukaldeko altzariak



Sukalde berriak prezio ezinobeagotan!!